


Artzapezpikuaren bisita



Artzapezpikuaren bisita

Jatorrizko izenburua: *Vizita Arhiepiscopului*

Egilea: Ádám Bodor

Itzultzailea: Unai Elorriaga

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Elkarlanean

MIKEL GARMENDIA

"Erabat zoroa da dena, baina aldi berean ederra", horra nola definitzen duen Unai Elorriagak, eleberri berezi honen itzultzaileak, *Artzapezpikuaren bisita*. Eta gehiago zehaztuz, honela dio itzultzaileak: "Hori da txundigarriena: nola zatikatzen duen harria, zatikatua ez dagoela uste izateraino".

Berezizat jo dugu eleberria, nolabait ere aditzera eman nahiz eleberria irakurtzen amaitzeko unean uzten duen sentazioa edo, hobeto esan, gogoia. Eleberria berriro irakurtzen hasteko gogoia, alegia, gustura bai, baina erabat konforme gelditu ez garelako sentazioa. Berdin gertatzen da, nik uste, Juan Rulforen *Pedro Páramo* edo *El Llano en llamas* irakurri ondoren, errealismo magikoa deiturikoaren irakurketak halaxe eskatzen baitu ziurrenik, eta asko du esku artean dugun eleberriak delako errealismo magikotik.

Bogdanski Dolina herritik hurbil, Karpato mendien artean, Izolda isolamendu-zentroa daukagu, hantxe sartzen baitituzte biriketako gaixoak eta bestelako batzuk eguzkiak eta haziak gogor erasotzen dien barrakoietan. Herri hartan egun sentiak orduak irauten ditu eta zaborrak bere argia dauka eta bertako agintariak ez dira, behiala bezala, mediko ehiztari beldurgarriak. Eliza-ierarkia batek gobernatzen du orain gizartea, non bizatanleak erabili eta botatzeko giza materiala besterik ez diren. Denbora guztian, herritarrak artzapezpikuaren bisitaren zain daude. Eleberriak, azken finean, ez du hori baino askoz ere argumentu garatuagorik, baina bere horretan, horixe dugu muina: tiranien gizatasunik ezak itotako gizarteen tragedia. Hori, alabaina, estilo txit landu eta depuratu batez, ia poesia izatera iristen baita, kontatzen digu edo, beharbada hobeto esanik, iradokitzen: "Are gehiago, plastiko zatien txilioak ere entzuten ziren".

Oso itzulpen txukun eta zaindua eskaini digu Unai Elorriagak, eta ez da harrizkoa, batetik, langintza hau ederki menderatzen duelako eta, bestetik, gustuko aldapan ez omen delako nekerik: "Azken urteotan gehien harritu nauten liburuetako bat da hau, aurkitu dudan libururik perefektuenetakoa".